

B

BARREN

TOKIKOM



36ko gerraren arrastoan



Talde txikiekin egingo dugu lan - Ikastaro terapeutiko eta pertsonalizatuak

- ♀ Yoga Formakuntzak
- ♀ Pilates kontenporaneoak
- ♀ Aeropilates
- ♀ Hipopresiboak
- ♀ Yoga
- ♀ Yolates (haurrei zuzendua ostiraletan: 16:30 /17:30)
- ♀ Thailandiar masajeak
- ♀ Terapiak
- ♀ Hitzaldiak – ikastaroak
- ♀ Elikadura aholkuak

Ordutegia

ASTELEHENA

- Pilates K.
7:45 / 8:45
- Yoga
10:15 / 11:45
- Pilates (Adinekoak)
12:00 / 13:00
- Pilates K.
13:15 / 14:15
- Yoga
15:00 / 16:30
- Yoga
17:15 / 18:45
- Hipopresiboak
19:00 / 19:45
- Aeropilates
20:00 / 21:00

ASTEARTEA

- Pilates K.
9:15 / 10:15
- Hipopresiboak
10:30 / 11:15
- Hipopresiboak
13:15 / 14:00
- Hipopresiboak
16:45 / 17:30
- Aeropilates
17:45 / 18:45
- Yoga
19:30 / 21:00

ASTEAZKENA

- Hipopresiboak
8:00 / 8:45
- Yoga
10:15 / 11:45
- Pilates (adinekoak)
12:00 / 13:00
- Pilates K.
13:15 / 14:15
- Yoga
15:00 / 16:00
- Yoga
17:15 / 18:45
- Aeropilates
19:00 / 20:00
- Hipopresiboak
20:15 / 21:00

OSTEGUNA

- Pilates K.
9:15 / 10:15
- Hipopresiboak
10:30 / 11:15
- Hipopresiboak
13:15 / 14:00
- Aeropilates
17:45 / 18:45
- Hipopresiboak
19:00 / 19:45



**Jose Luis
Azpillaga**

Udako oporretatik bueltan, hemen gara berriz ere euskaltegiok, 2014-15 ikasturteko matrikulazio-kanpainan sartuta, elgoibartarrak euskara ikas-tera eta lantzerantz animatu nahian. Bate-

ko, kaleko txartelak eta eskuorriak; besteko, egunkari, aldizkari, irrati eta telebistako iragarkiak, ... nahikoa gogaikarri jartzen gara euskaltegiok irailan, ezta?, Amaia! Hala ere, dena beharrean, ikasleak euskaltegiratuko badira! Gainera, justu orain, non jakin dugun Pablo Berastegui Donostia 16ko zuzendari berriak ez dakielako euskaraz... "oraindik" (bere hitzetan). Espero dezagun euskaltegiaren batean izena ematea lehenbailehen!

Udan Katalunia aldeko Pirinioetan ibili naiz egun batzuetan, Lleida aldean. Ez nuen inguru hura ezagutzen, eta esan behar dizut txundituta geratu naizela han katalan hizkuntzak duen presentzia eta indarrarekin. Hango herrietan den-denek egiten dute katalanez kalean normal-normal; kultur ekitaldiak katalanez eskaintzen dira, bisita gidatuak ere katalanez... jakina! Ez dut uste Katalunian Pablo Berasteguirena bezalakorik gertatuko litzatekeenik.

“Udan txundituta geratu naiz Lleida aldean katalanak duen presentzia eta indarrarekin”

Argi dago egoerak ez direla berdinak, baina badugu zer ikasirik katalanengandik. Herri baten borondateak asko dezakeela erakusten ari dira. Horra hor Diada eguneko indar-erakustaldia!

Herriaren borondateak indar itzela du, baina baita norbanakoaren ere. Euskaltegietan euskara ikasten dabilzan eta ibili diren hainbat eta hainbat ikasleak erakutsi digute, oztopoak oztopo, posible dela eta merezi duela ikastea. Baina, Pablo Berasteguiaren kasuaren ondoren, esan, Amaia: nola konbentzitzen ditugu orain heritarrak, euskara ikas dezaten?



**Amaia
Larrañaga**

Bai, J.Luis, irailero bezala, hemen dihardugu euskaltegietan eskaintzen dugunaren berri ematen: ez dakitenek ikas dezaten, txikitak jakin, baina ez erabiltzeagatik ia-ia galdu edo erdi galdu dutenek (honetako makina bat bada inguruan) berreskura dezaten, lanerako tituluren bat behar dutenei eskuratzen laguntzeko (hemendik aurrera A1 eta A2 mailatarako titulak ere emango ditugu)... Horiek guztiak bakoitzak ahal

duen ordutegira moldatuta: goizean, bazkalostean, arratsaldean eta gauetan. Gainera, udalaren diru-laguntzei esker, matrikula erdia ordainduta eta ikasturte bukaeran beka jasotzeko aukerarekin.

“Bai, baina hemen zenbat aldiz gertatu zaigu bi euskaldun jo eta su erderaz entzutea?”

Hau dena eskainita, alderdi guztietatik begiratuta, ezin inork leporatu erraztasunik ematen ez dugunik, baina hemen, J.Luis, ez da gertatzen Katalunian gertatzen dena, alegia, ez gara bizi euskaraz, kalean eta sukalde askotan erdera da nagusi, eta ez da jendeak euskara baloratzen/maite ez duelako edo instituzioek ahaleginik egiten ez dutelako.

Zenbat aldiz pasatu zaizu, J.Luis, kalean zehar joatea eta gutxien uste duzun bi euskaldun, ustez abertzaleak omen direnak, jo eta sua erderaz entzutea? Niri, behintzat, sarri. Hori dela-eta, Txillardegiri behin entzun niona etortzen zait beti burura: (besteak beste) Espainiako bandera erabiltzea (pin-a, arropetan koloreak txertatuta, pegatina...) ez dugu onartzen, espainiera erabiltzea, ostera, ondo ikusten da, askok bai behintzat. Bejondeiela!

Bestelakoak ere izan badira, eta horiei esker eta astoak atzeraka baino burugorraga jokatzen dugunoi esker, ea herritarrek aprobetxatzen duten euskaltegiok eskaintzen duguna, zuk diozun bezala, J.Luis, horretan ari edo aritu direnek dioten moduan, posible delako eta merezi duelako.





I. URTEURRENA

MANOLO GIL ZENGOTITA

2013ko irailaren 17an hil zen, 85 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailak 20, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.
Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

COORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEKO
ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika
ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea
Osoro KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi,
Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara
Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez,
Majalen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Inigo
Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga,
Danele Sarriguarte, Mikel Olaizola, Esti
Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute,
Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.
TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-
1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



elgoibar
biZi-biZiKa!



MENDAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK



BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Noiz erori araziko dugu dispartzioaren harresia?

Euskal jendarteak gatazka garaia atzean utzi eta behingoz bake eskenatoki bat eraikitzeke nahia irmoki adierazi du.

Gatazkaren muinera joz eta iraganeko zein gaurko ondorioei konponbide bat emanez soilik lor dezakegu hori. Pertsona ororen giza eskubide guztiak errespetatu eta bermatuz. Eta horretan preso, iheslari eta deportatu zein bere inguru hurbila barnebiltzeak premiazkoa izan behar du. Gure helburua guztien etxeratzeara ahalbideratuko duen herritar sare bat ehuntzea da.

Euskal jendartea osatzen dugun pertsonok, nahiz eta iraganean zatiturik egon, gure indarrak batzea nahi dugu benetan merezi duen erronka baten baitan: giza eskubideen errespetua, gatazkaren konponbidea eta bakea.

Norbanakoaren konpromisotik abiatuturiko aktibazioa lortzeko, Euskal Herriko bizitza sozial zabalarekin elkarlana bilatu eta bultzatzen dugu.

Hori dena kontuan hartuta, bihar irailak 20, arratsaldeko 18:00etan Bilbon egingo den ekitaldian parte hartzera gonbidatzen zaitugu.

Autobusa, arratsaldeko 16:30ean irtengo da Txankakoatik. Izenemateak: Iturri eta Jai Alain.

Herritarren ueña da!!!

SAREren ueña da!!!

SARE C

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENeN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

Oroitzea betebeharr



Liburuaren egileak alkatearekin. Patxi Juaristi, Iñaki Goigana, Alfredo Etxeberria, Francisco Etxeberria, Aitor Esteban eta Josu Chueca.

Biktimek oroitua izateko eskubidea dute eta biktima izan ez direnek memoria egiteko betebeharra. Eta hain justu ere, betebeharr horri heldu dio Elgoibarko Udalak. Memoria historikoa egiteko ahaleginean, abuztuan, *Goazen gudari danok... askatasun bidean* izenburuko erakusketa zabaldu zuen, zenbait kultur erakunderekin eta Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako zein Bizkaiko foru aldundiekin elkarlanean, eta haren bueltan programa oso bat osatu dute. 1936ko gerran Bizkaiko Golkoan hasi eta Elgetaraino luzatu zen frontean bizi izan ziren gertakarien berri emateko sortu dute guztia, baina bereziki, Aiastiako lurretan izan ziren borrokak oroitze eta hemen gertatu zenak gerora izan zuten garrantziaz ohartarazteko. Astelehenean aurkeztu zuten erakusketaren izen bereko liburu eta atzo estreinatu zuten dokumentala. Domekan, berriz, gudariak eta haiekin batera gerran ibilitakoak oroitze ekitaldi ofiziala egingo dute Aiastian, Zirardamendin. 9:30ean batuko dira Aiastiako frontoian eta lau bat kilometroko ibilaldia egingo dute gudarien gorpuak deshobiratu zituzten lekuraino. Egitarau osoa agendan.

Ainara Argoitia

36ko gerraren laburpena egin du historialari eta aditu talde batek begia Zirardamendiko borroketa jarrita, eta astelehenean aurkeztu zuten egileek eurek Elgoibarko Kultur Etxean. Patxi Juaristi eta Josu Chueca Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak, Aitor Esteban EAJren bozeramailea Espainiako Kongresuan, Iñaki Goigana Sabino Arana fundazioko artxibozaina eta Francisco Etxeberria Aranzadi Zientzia Elkarteko zuzendariak egin dute dokumentazio lan osoa. Nork bere atala idatzi du, enkarguz, Iñaki Goiganak egin ditu koordinazio lanak, eta 36ko gerraz ari garela sarri gertatzen den moduan, ezinegon pertsonal bat izan da erakusketa egiteko abiapuntua. Izan ere, gertuko senide baten bila Aitor Estebanek berak egindako lanaren bueltan osatu dute erakusketa, programaren ardatza dena.

Estebanen aitagarrebak frontean galdu zuen anaia [Sabin Atutxa Olabarrí], ustez Gipuzkoa aldean eta gerra hasi berritan, eta haren peskizan egindako lanak Zirardamendira ekarri zuen Esteban, hamaika ibileraren ostean. Aranzadi zientzia elkartearen bidez jakin zuen Sabin Atutxa gudari gaztea Aiastiako borrokan hil zutela fran-

kotarrek, tiroz, eta Sabin zela Aiastiako baseritarrek emandako lekukotzei esker Zirardamendin deshobiratu zuten lau gudari gazteetako bat. Ia aldi berean jakin zuen, era berean, Arana Goiri batailoa osatu zuten gudarietako bat izan zela Sabin Atutxa eta Garaizabal konpainian borrokatu zela, Iñaki Arana kapitain zutela. Baina senide zuenaren bila egindako urteetan, borondatez Euzko Gudarostea sortu zuten gazte haien inguruko informazio asko bildu zuen Estebanek, eta jabetu zen gudari haien eta haiekin batera borrokatu ziren miliziano, anarkista eta gainerakoen adore eta kemenari esker lortu zela nazionalen aurrera egitea gelditzea eta geldialdi horri esker argia ikusi zuela II. Errepublikaren urteetan zehar oztopoz betetako bidea izan zuten Autonomiaren asmoak. Egun erabakigarriak izan ziren beraz 1936ko irailaren 21etik [Francoren tropak Elgoibarren sartu ziren] urriaren lehenengo egunetara artekoak, eta halaxe nabarmendu zuten liburuaren egileek eurek aurkezpen ekitaldian. Guzti honetan koordinazio lanak egin dituen Goiganaren berbeekin eta 36ko gerran gure inguruko mendietan gertatu zenaren kronologiarekin osatu dugu reportaje hau.



Iñaki Goiogana

Sabino Arana Fundazioko artxibozaina

Irailaren 21etik urrira arteko egunak erabakigarriak izan zirela aldarikatu duzue, besteak beste nazionalen aurrerabide hori gelditzeak bidea eman ziolako Jauriaritzari antolatze.

Euskal Autonomiaren asmoa gauzatu izana Zirardamendi eta inguruotan borrokatu ziren gazte haiei zor zaiela esatea gehiegi da?

Ez, ez da inondik inora esajerazioa; ez da guri otu zaigun kontua. Pentsa: Irailaren 13an hartu zuten Donostia francotarrek eta astebete baino ez zuten behar izan ia Gipuzkoa osoa hartzeko. Ikusita Gipuzkoan zein erraz egin zuten aurrera, uste zuten arrapaladan hartuko zutela Bizkaia. Irailaren 25erako Bizkaian sartzeari aurreikusita zeukan Mola jeneralak. Erraz ikusten zuten nazionalak, eta etsi-etsian errepublika zaleek eurek ere bai. Kontuan izan behar dugu errepublikaren aldekoek ez zutela armarik, ez bazen Eibarren lortutako pistola batzuk, ehizarako eskopeta batzuk, herriko udaltzainari kendutako fusilen bat edo beste eta Bilboko eta Loiolako koartelean lortutako arma batzuk, baina hori ez zen behar zen beste inondik inora. Horregatik jausi zen na-

gusiki Gipuzkoa, baina gertatu zena zen Defentsarako Bizkaiko batzordeak lortu zuela ezkutuan arma kargamendu bat ekartzea Txekoslovakiatik Bilbora. Arma onak lortu zituzten, behar zen beste, eta posizioetan zeudenen artean banatu zituzten gero [irailaren 23a]. Eta arma horiei esker eta hasi Asterrikan [Lekeitio eta Ondarroa arteko auzoa] eta Elgetarainoko tartean borrokan aritu ziren milaka boluntariok defentsarako erakutsi zuten adoreari esker lortu zuten Francoren tropak geldiaraztea. Arma horiek ailegatu izan ez balira eta nazionalen aurrera egitea gelditu izan ez balute, Eusko Jauriaritza ez zatekeen eraturko, eta eratu izan balitz, azkeneko momentuan eraturko zen zerbait anekdotiko moduan. Beraz, bai, esandako guzti horri esker lortu zen, hein handi batean, erregimen errepublikanoaren legalitatea sustatzen zuten diputatu guztien oniritziarekin urriaren 1ean Madrilen Autonomia Estaturua onartzea [gerran besteekin batera aritzeko baldintzatat jarri zuen EAJk] eta astebete geroago [urriaren 7an] eratu zen Eusko Jauriaritzak denbora izan zuen antolatze. Bederatzi hilabete izan zituen lanerako: frontea hemen kateatuta egon zen sei hilabeteak eta Francotarrek Bizkaia hartzeko behar izan zituzten beste hiru hilabete.

36ko gerran gertatutakoak argitzeko behar beste egin ez izana lepora-

1936ko gerra Elgoibar inguruko lurretan

1936ko uztailaren 18an izan zen militarren altxamendua eta biharamunean Mola jeneralak argi esan zuen zer zetorren Iruñeko Gaztelu plazan milaka erreketaren aurrean egindako agerraldian: "Izua erein behar da. Menpekotasun sentsazioa laga behar da, guk bezala pentsatzen ez dutenak eskrupulorik gabe desagerraraziz".

Irailak 21: 1936ko irailaren 13an. Donostia hartu zuten francotarrek eta eragozpen handi barik egin zuten aurrera. Elgoibarrera, irailaren 21ean iritsi ziren, Azkoitik barrena. Donostia hartu ostean, hiru zutabetan antolatu zen matxinatuen armada, erasorako. Iruretagoyena, Los Arcos, eta Alonso Vega zutabeak. Iruretagoyena zutabea hiru taldek osatzen zuten [Latorre, Cayuela eta Gonzalez Unzalu] eta kostaldean egin zituen erasoak. Los Arcos zutabeak, berriz, Gipuzkoako erdialdean jardun zuen borrokan eta ondorengo talde hauek osatzen zuten: Diaz de Rivera, Perez Salas, Tejero eta Saleta taldeak. Eta azkenik, Alonso Vega zutabea Arlabandik barrena sartu zen Bergara eta Elgeta aldera. Elgoibar hartzen lehenengoak Diaz de Riveraren taldekoak izan ziren. Garbi ez badago ere, Patxi Juaristik urteotan egindako elkarriketek bidea ematen dute 18:30ak aldera sartu zirela pentsatzeko.

Irailak 22: Mendi-hegaletan posizioak hartu zituzten francotarrek, Elgoibar inguratzen zuten tontorretatik egiten zieten erasoeri erantzuteko. Garate gaina ere hartu zuten Diaz de Riveraren gizonek. Arratsaldean, Perez Salasen taldea heldu zen Elgoibarrera, aurrekoen bide beretik, eta Karakate zeharkatuz, Soraluze hartu zuten iluntzean. Era berean, Cayuelaren taldekoak ere iritsi ziren Altzolara, kostaldetik, eta Deban gelditu ziren Latorreren taldekoak.

Irailak 23: Bizkaia okupatzeko behin betiko aginduaren zain zeuden matxinatuak, nork bere posizioan. Egun horretan bertan, Gonzalez Unzaluren laguntza taldekoak Mendarora iritsi ziren, mugimendu taktiko bat eginez. Egun horretan bertan Bizkaiko Defentsak ezkutuan lortutako arma kargamendu handia iritsi zen Bilbora eta Arana Goiri baitailoia armatzeko baliatu zituzten arma horiek. Hein handi batean, arma haiei esker lortu zuten errepublikaren aldekoek nazionalen aurrera egitea gelditzea eta frontea gure inguruko mendietan egonkortzea.

Irailak 24: Irailaren 25erako errenditzeko agindua emana zien Mola jeneralak errepublika zaleei. Errenditu ezean, gupidarik gabe erasoko ziela mehatxu egina zuen; zituen baliabide guztiak erabiliko zituela Bizkaia suntsitzeko. Hala, bezperan, ofentsiba hori prestatzeko saio

tu dio Pablo de Greiff NBEko kontalariak Espainiako Gobernuari eta Madridik erantzun diote auzi honek zatiketa sustatzen duela herritarren artean. Zer duzu esateko? Madril albora lagata, uste duzu hemen bertan behar beste egin dela?

Sekula ez da behar beste egiten; beti dago zeregin, baina esan nahi nuke memoria egitea denoi dagokigula, gutxi edo asko orduan gertatu zena eragina gaur egunean ere handia delako. Urte batzuetatik hona halako loraldi antzeko bat bizi dugu; jendeak nahi du jakin zer gertatu zen 36ko gerran, eurenen bila dabil, eta ahotik ahora darabilgu memoria historikoa terminoa, baina ez dugu ahaztu behar bi berba direla horiek. Jabetu behar gara horretaz eta ez dugu ahaztu behar zein gaitza den biak ondo uzartzeari. Memoria sarri bihotzarekin edo triparekin egiten da, eta ez dut esango hori txarra denik, sentimenduak ere kanporatu behar direlako, baina historia ere egin behar da. Kontatu behar da izan zena izan zen moduan, edo norbere ikuspegitik nahi bada, baina historia eginez. Mila modutara kontatu daiteke historia, eta denak dira balekoak serio eginez gero. Gu ahalegindu gara bien arteko oreka bilatzen. Hemen gertatu zenak berez du garrantzia behar baino gehiago puzteko, beraz, kontatu dezagun gertatu zena gertatu zen bezala. Itzelak egin zirelako bi aldeetan. Ez du balio ezkutatzek.

Zirardamendin gertatuakoaren memoria historikoa egiteaz ari garela, deigarria egin zait gudariekin batera gerran jardun ziren anarkista, mili-

“Nazionalen aurrerabidea hemen gelditu ez balute Jaurlaritza ez zatekeen eratuko”

ziano eta abarren aipamen eza.

Bai, bai, hori holaxe da. Horretan arazoak izan ditugu. Ez dira aitatzen aitatu beharko liratekeen beste seguruena, baina ez da hain erraza informazioa topatzea. Guk oraingo honetan zortea izan dugu, zortearen erdia nahiago baduzu, baina zortea azken batean Aitor Estebanek, senide interesengatik, Arana Goiri batailoiko gudarien joan-etorriak landu dituelako, baina, jakina, gudari haiekin batera milizianoak eta beste jende asko ere izan ziren, eta horiek ez ditugu aipatzen nahi beste, baina ez nahi izan ez dugulako, baizik eta astirik ez dugulako izan eta bestetik ez dugulako lortu Aitorrek bere lana

egiteko baliatu dituen iturrien besteko iturriak. Egindako lanaren parte handi bat Frankisten euren agirietan oinarrituta egin du Aitorrek. Guda-riengan jarri dugu guk lupa besteengan baino gehiago, baina esan beharrik ez dago Zirardamendin jende asko borrokatu zela gudariekin batera. Zirardamendin borrokatu ziren gudarien testigantzetan, Jose Mari Otxoa de Txintxetru Zubiaur konpainiako gudariak berak aipatzen du anarkista batzuek artatu zutela bera Francotarrek zauritu zutenean. Bando berekoen artean ere borroka asko izan zituzten, bereziki Gipuzkoan, eta egia da gerra hasi bezperan euren arteko hartueman eska-sa zela, baina batu egin ziren ez zitzaielako beste aukerarik gelditzen. Hala ere, esango nuke batze hori uste zena baino errazagoa izan zela, gehiago zelako lotzen zituena banatzen zituena baino.

batzuk egin zituzten matxinatuek. Mendi gainetan zeuden errepublikanoen indarrak neurtzeko, Bigoin ibarrean gora egin zuen Diaz de Riveraren taldeak, eta Mutriku aldera zuzendu zituzten erasoak Latorre taldekoek. Perez Salasen taldeak, berriz, Munetako gainak hartu zituen eta Azkaraterako bidea trabatzen zuten frankotiratzaileak baztertu zituen. Egun horretan bertan, Arana Goiri batailoikoek fronteraantz abiatutako agindua jaso zuten. Txekoslovakiatik ekarritako armekin armatu zituzten gudari gazte haiek.

Irailak 25: Odol asko isuri zen gure mendietan. Zirardamendi eta Bigoingo gainetan zeuden Arana Goiri batailoiko gudariei eraso zieten Diaz de Riveraren taldekoek. Eguerdik aldera, gudariak atzera egin zuten, baina Urkaregiko gaina eta mendi pasabidearen artean berregin zituzten defentsa lerroak. 17:00ak aldera arte iraun zuen borrokak. Uste baino erresistentzia gogorragoa topatu zuten matxinoek. Irailaren 13an Donostia hartu zutenetik abiada bizian zetozen, astebetean ia Gipuzkoa osoa amaituta, eta uste zuten Bizkaia ere azkar batean egin zutela bere, baina hemen uste baino erresistentzia gogorragoa topatu zuten. Borroka gogorrak izan zituzten, baina Errepublikaren aldekoek ibar bat baino ez zuten galdu. Ikusita errepublika zaleek erakusten zuten erresistentzia,



Jose Maria Otxoa de Txintxetru gudariak Zirardamendin hildako lagunaren omenez 1952an jarri zuen gurutzaren erreplika.

Gonzalez Unzaluren taldekoek inguratze mugimendu bat egin zuten, Arnora gerturatzeko.

Irailak 26: Aurretik eta ezkerreko aldetik erasotzen zietela ikusita, Morkaikuko gaina hartzea erabaki zuen Diaz de Riverak. Ez zen kosta gabeko lana izan, baina lortu zuten. Baja asko izan zituzten matxinoek eta tartean Diaz de Rivera bera ere zauritu zuten. Eraso hartan hil zen, era berean, Juan Carlos I.a Espainiako errege


izan zenaren osaba Carlos Borboikoa. Bestalde, inguratzeko ahalegin horretan, Gonzalez Unzaluzen taldekoek Arno mendiguneko hiru tontor garaienak hartu zituen.

Irailak 27: Latorre eta Gonzalez Unzalu taldeek erdian hartuko zuten beldurrez, gudariak Ondarroara erretiratu ziren. Egun horretan Mutriku hartu zuten francotarrek, Gonzalez Unzaluzen taldekoek.

Irailak 28: Diaz de Riveraren menpeko soldaduek Kalamua eta Akondiako gainak eta Arrate hartu zituzten, Errepublika zaleek espero ez zuten mugimendua eginez. Mugimendu horri gehitu behar zaio Cayuelaren zutabekoek gogor eraso zietela Urkaregin zeuden errepublika zaleei eta Urkaregi gaina okupatzea lortu zutela. Mendi gainak eurenak egin zituzten francotarrek eta mendi magaletatik erasotzen zieten Errepublika zaleek.

Irailak 29: Errepublika zaleek hainbat saio egin zituzten Arrate, Mutriku eta Urkaregiko gaina berreskuratzeko, baina ahalegin guztiak ustelak izan zitzaizkien, baita biharamunean egin zituzten ahaleginak ere.

Irailak 30: Posizioak bere horretan zeuden eta halatsu egon ziren urriaren 4ra arte. Urriaren 4an, baina, francotarrek eraso gogor bat hasi zuten. Kostaldeko zutabeak erresistentzia garaitu eta Ondarroa hartzea lortu zuen eta handik Berriaturaino egin zuten aurrera. Ikusita, Cayuelaren unitateak aurrera zetozela eta inguratuta gelditzeko arriskua zutela, gudariak Markinara erretiratu ziren. Eta egun horretan esaten da frontea egonkortu egin zela. Hau da, 1937ko apirilera arte fronte-erroak apenas egon zela aldaketarik eta nork bere posizioetan jarraitu zuela, erasoan.





Pilarreko aparkalekuan putzuak sortzen dira euria egiten duenean: "Pilarreko aparkalekuko lurak ez du ura xurgatzen, eta euria egiten duenean putzu handiak sortzen dira. Autoa aparkatu ostean, hankak putzuan sartu behar izaten ditugu sarritan autotik irtetea, eta oinak erabat busten zaizkigu. Badakigu aparkaleku hori behin behinekoa dela eta gune horretan beste proiektu bat egitea aurreikusi dutela, baina aparkaleku bezala erabiliko den bitartean, gutxieneko baldintza batzuk betetzeko eskatu nahi diogu Udalari". Ricardo Garate Hirigintza zinegotziak esan du arazoa aztertuko dutela eta egingo dutela konpontzeko ahalegina.



Lekuederreko haur parkeko lurra zuloak daude: "Lekuederreko haur parkeko lurra zuloz beteta dago eta konpontzeko beharra dauka. Elgoibarren ez ditugu parkeak sobera, eta daudenak behintzat erabiltzeko moduan mantentzeko eskatu nahi dugu". Hirigintza Saitetik esandakoaren arabera, Yor enpresak egiten ditu haur parkeetako mantentze lanak, eta berandu baino lehen konponduko dutela gaineratu dute arduradunek.

Herri Eskolako umeen autobusa geratzen den lekuan zulo handi bat dago: "Herri eskolako umeen autobusa Kalamua kalean geratzen da, umeak autobusetik jaitsi eta Haur Eskolara joan daitezten. Leku horretan hain justu, zulo handi bat dago espaloian, oso arriskutsu. Egunen baten umeren batek hanka sartuko du zuloan eta ezbeharren bat izango dugu. Lehenbailehen konpontzeko eskatu nahi diogu Udalari". Ricardo Garatek esan du une honetan berrikuntzak egiten ari direla Urazandiko espaloietan, eta zulo hori ere konponduko dutela.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
baren@elgoibarkoizarra.com 943 744 112

ESKERTZA

JUANITO LOIOLA BERGARETXE



*Izan zarenagatik,
 erakutsi duzunagatik,
 egin duzun guztiarengatik,
 ez zaitugu inoiz ahaztuko
 eta gure bihotz barrenean
 eramango zaitugu betiko.*

2014ko irailaren 14an hil zen, 69 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Datorren astelehenean hasiko dituzte Maalako parkea estaltzeko obrak

Gabonetarako gune berria erabiltzeko moduan egotea espero dute arduradunek

Maalako parkea estaltzeko lanak datorren astelehenean hasiko dituztela jakinarazi du Elgoibarko Udalak, eta Eguberrietarako amaitu nahi dituzte obrak. Maalako parkea estaltzeko proiektua aukeratzeko ideia lehiaketa antolatu zuen Elgoibarko Udalak, eta losu Gabilondo arkitekto elgoibartarrak aurkeztutako *Hegoak ebaki banizkio* izeneko aurre-proiektuak irabazi zuen lehiaketa. Zortzi lan aurkeztu ziren lehiaketara, eta epaimahaiak esandakoaren arabera, lehia bizia egon zen proiektuen artean. Ingurura nola egokitzen den, egitura mantentzeak zer kostu izango duen geroa begira, gaur egun parkeari ematen zaizkion erabileretara nola egokitzen den, prezioa eta argitasuna izan zituzten kontuan, besteak beste, eta horiei erreparatua aukeratu zuten losu Gabilondoren proiektua.



Estazio kaletik San Rokerako igogailua jartzeko obrak hasiko dituzte

Hirigintza Saitetik jakinarazi dutenez, datorren astean hasiko dituzte Estazio kalea eta San Roke auzoa lotuko dituen igogailuaren obrak. Aurtengo aurrekontuetan iaz baino diru gehiago aurreikusi du Udalak inbertsioen atalerako: 2013an milioi bat euro erabili zituen inbertsioetarako, aurrekontu osoaren %7,98, eta aurten, 1.590.365 euro izango dira; aurrekontuaren %12,34. Horren barruan sartu dute igogailuaren obra, eta horretarako 302.348 euro erabiliko dituzte.

Mendaroko Ludotekan izena emateko epea zabaldu dute

Mendaroko Ludotekan izena emateko eskuorriak Ikastolan banatuko dituzte, baina nahi duenak udaletxean edo ludotekan bertan ere eman dezake izena. Irailaren 22tik 25era atek irekitzeko egunak izango dituzte ludoteka ezagutu eta probatzeko, eta irailaren 29tik aurrera bazkideentzat bakarrik egongo da zabalik, 17:00etatik 19:00etara. Ikasturte osoko kuota 44 eurokoa da, eta urtariletik aurrera izena ematen dutenek 27 euro ordaindu beharko dituzte.



2014ko irailaren 14an hil zen,
69 urte zituela

JUANITO LOIOLA BERGARETXE

Mendaroko alkate izandakoa

Beti gogoan izango zaitugu



Mendaroko Udala

Izena **Juanito Loiola**



Juanito Loiola Mendaroko lehenengo alkatea izandakoa hil zen joan zen domekan, 69 urte zituela. 1983ko uztailaren 3an erabaki zuten Gipuzkoako Batzar Nagusietan Mendaro Elgoibartik eta Mutrikutik banatzea, eta Mendarori herri izaera ematea. Hala, urte hartako abenduaren 30ean osatu zuten Mendaroko lehen Udala. Ondoren egin ziren hauteskundeetan Juanito Loiola aukeratu zuten alkate, eta bera izan zen Mendaroko alkate 1991ra arte.

Feria **Artisautza eta eskulanak**

Udaleko Kultura Sailak herritarrentzako artisau eta eskulan feria antolatzen dihardu urriaren 25erako. Ferian parte hartu nahi dutenek urriaren 6ra arte daukate izena emateko aukera, Kultur Etxean goizez, edo kultura@elgoibar.net helbidera idatzita. Ferian parte hartu ahal izateko ezinbestekoa da adinez nagusia eta elgoibartarra izatea.

Irudia **Arribiribiletako erromeria**



Arribiribiletako zutarrria tente dagoela ospatzeko erromeria egin zuten joan zen domekan Irukurutzetan, zutariaren inguruan. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, lauhun pertsonatik gora batu ziren, gehienak inguruko herrietakoak, Elgoibarkoak, Soraluzeakoak eta Bergarakoak. Aranzadi Zientzia elkarte adituen azalpenekin hasi zen ekitaldia, eta ondoren, dantzari eta txistularien saio berezia eta umeendako jolasak izan ziren, besteak beste. 4.000 urte baino gehiago dituen Historiarreko monumentu megalitikoak da Arribiribiletako zutarrria, eta Aranzadi Zientzia elkarte kideek jarri zuten zutik berriro, joan den irailaren 4an.

Sallobenteko festetako errifaren saria banatu dute

Sallobente auzoko jaietan errifak jarri zituzten salgai antolatzaileek, eta dagoeneko agertu da irabazlea. 30.529 zenbakiarekin, Maria Jose Leniz mendararra izan da sariduna. Txahala edo 1.205 euro zituen aukeran, eta mendarorak txahala eraman zuen etxera.



Langabeentzako ikastaroak IMHn

IMHk langabeentzako ikastaroak eskainiko ditu, 100%ean diruz lagunduta. Besteak beste, Txirbil-harroketara bidezko mekanizazioa; ekipo-ondasunen eta industri-makineriaren muntaketa eta abiaraztea eta proiektu mekanikoen garapena eskainiko dituzte. Informazio gehiago IMHren webgunean edo 943 748 270 telefonoan (Nora Ramon).

San Roke jaietako errifaren sariduna ez da agertu oraindik

San Roke jaietako errifan telebista bat zozketatu zuten antolatzaileek, eta oraindik ez da irabazlea agertu. 1.572 zenbakia izan da sariduna (Ordezkoa, 2.153).

Elkartasun zozketako saria

Irailaren 9an egin zuten Zarautzen Elkartasun zozketa, eta haxe izan da zenbaki sariduna: 18.291 (Ordezkoa, 16.332).

Altzariak berritzeko eta birziklatzeko ikastaroa

Esku arte tailerrak altzariak berritzeko eta birziklatzeko ikastaroa eskainiko du urriaren 2tik aurrera. Martitzen eta egue-netan emango dituzte saioak. Interesatuek ondorengo telefonora deitu dezakete: 615 764 337 (Nieves).

SkandinaBike Norvegi



Eñaut Izagirre, Mikel Arosa eta Julen Salaberria Stavangerreko alde zaharrean.

Hamaika modu dago gaur egun bidaiatzeko: batzuk furgonetan joaten dira mendi aldera, beste batzuek nahiago izaten dute berririalde bat alderik alde zeharkatzen dutenak ere. Gaurkoan, bizikletaz bidaiatu duten hiru gazte ekarri ditugu gurera. Eñaut eta hilabetean mila kilometro egin dituzte bi erroberatan.

Orain dela pare bat urte hasi ziren Mikel Arosa, Julen Salaberria eta Eñaut Izagirre gorpil gaineko oporraldia prestatzen. Eñautek berak proposatu zuen koadrilan Norvegiara bizikletaz joatea, eta Mikelek eta Julenek berehalakoan erantzun zioten baietz, birritan pentsatu gabe. Iazko udan joateko asmoa zeukaten, baina tarte horretan, Eñauti ikasketak Txilen egiteko aukera suertatu zitzaion, eta urtebetez atzeratu behar izan zuten Norvegiarako espedizioa. Aurtengo udan, baina, ez dute hutsik egin, eta uztaillaren 23tik abuztuaren 20ra egin dute bidaia, sanbartolomeetan ere “ezin zutelako” hutsik egin. Mikel eta Julenek kontatu dizkigute udako abenturak, Eñaut dagoeneko Txilera itzulia delako.

Orain dela urte batzuk trenez ibiliak ziren hiru gazteak Europan zehar, baina bizikletaz bidaiatu duten estreinako aldia izan da. Kirola egitea gustuko dute hirurek, eta fisikoki “ondo” prestatuta ikusten zuten euren burua, baina bizikletaz gutxi ibiliak zeuden: “Beste kirol batzuk bai, baina bizikletan ez gara asko ibiltzen. Pentsa, ni neu Eñauten bizikleta zaharrarekin joan naiz Norvegiara”, esan du Mikelek.

Bi hilabetez jardun zuten bidaia prestatzen. Norvegian badira bizikletaz ibili ezin diren tunel batzuk, eta badaezpada horrelako puntu guztiak identifikatu zituzten: “Eñautek demaseko lana egin du etapa guztiak prestatzen. Geografoa da, eta mapak eta bestelako informazio guztia prestatu zuen! Etapa bakoitzean geneuzkan kanpin eta osta-

a bizikletaz



hondartza aldera joatea, eta badira trenez edo autobusez hezagirre, Julen Salaberria eta Mikel Arosa Norvegiar izan dira,

Ainhoa Andonegi

tuen zerrenda ere bai!”.

Bizikleta kartoizko kaxa batean sartu, eta hegazkinez joan ziren Bilbotik Oslora. Iparraldetik Hegoalderantz egin dute bidaia. Oslotik Trondheimera joan ziren lehenengo, eta handik hegoaldera abiatu ziren ondoren, Stavangerreraino. 18 etapatan, mila kilometro inguru egin dituzte bizikleta gainean. Atsedean egunen bat ere hartu dute tartean, eta egun horietan oinez bisitatzen zituzten herriak.

Hilabeteko egonaldia

Hilabete inguru egin dute Norvegiar, baina “justuarekin” joan direla esan dute. Alforjetan eraman dute dena: jantziak eta jana. Urdaiaz-



pikoa hilabete osorako eraman zuten, pasta ere sobera, baina eguneroakoak han erosten zituzten. “Oinarrizko janaria ez zegoen garestiegi, baina garagardo batek 13 euro balio zituen!”. Egunero egiten zituzten diru kontuak eta gehiegikeriarik egin gabe ibili dira. Lo egiteko kanpin denda eraman zuten, horixe zelako aukerarik merkeena, eta eguraldi ona egiten zuenean kanpinean pasatzen zuten gaua. Akanpada librean egitea ere baimenduta dago Norvegiako hainbat lekutan, eta ideia tentagarria iruditu zitzaieen hasieran, baina berehala baztertu zuten ideia hori: “Gune horietan urik ez da egoten, eta ganadu asko dagoenez, edateko ura aurkitzeko zailtasunak ikusi genituen”. Euria egiten zuen egunetan, baina, teilatupean hartzen zuten ostatu, bungalow-etan. Denetariko prezioan egin dute lo, merke eta garesti, eta baita debalde ere. *Warmshowers* egitasmoari esker, hango bizilagunen etxeetan egin dute lo. Ostaturia trukatzeko atari bat da *Warmshowers*, eta norberak bere etxea eskaintzen du doan. Sei-zazpi gau egin dituzte hiru elgoibartarrek norvegiarren etxeetan, eta jaso duten tratua “harrigarria” iruditu zaie: “Osloen egin genuen lehen gaua hango mutil baten etxean, eta bizikletak hegazkinean sartzeko kartoizko kaxak gorde zituztuen azken egunera arte”. Norvegiarrek erakutsi dieten konfiantzarekin ere harrituta agertu dira. Familia baten etxean egin behar zituzten bi gau, baina haien etxera iristeko bizikletaz ibiltzea debekatuta zegoen tunel bat zeharkatu behar zuten. “Familiakoak etorri zitzaizkigun furgoneta batekin bila, eta bi buelta egin zituzten gu etxera eramateko!”. Goizean goiz joan ziren etxekoak lanera, eta etxean utzi zituzten bakarrik, nahi zutenean joateko aukera emanez. Jana, ohea eta zenbait lekutan arropa garbitzeko aukera ere izan dute, dena debalde. Eskerrak emateko azken gaueko afaria sukaldatzen zieten: patata tortila. “Ez zen gauza handia, baina gustura hartzen zuten”. Horrez gain, urdaiazpiko pakete bat oparitzen zieten, eta hona itzuli zirenean, gazta bidali zieten ostatu eman zieten etxe-jabeei. “Gaztazaleak tokatu zitzaizkigun bi etxetan, eta gure herriko gazta bidaliko geniela agindu genien”. Elgoibarko postala eta Mautsaxako gazta bidali dizkiete.

Bizikletaz ibiltzeko toki aproposa

Paisaje aldetik izugarri gustatu zaie Norvegia; “ikusgarria” iruditu zaie. “Norvegiar konturatu gara gizakia naturan ez dela ezer. Fiordotan barrena itsasontzi erraldoiak ere txiki-txiki ikusten ziren”. Hilabeteko epean herrialde oso bat ikustea ezinezkoa da, eta toki enblematikoenak bisitatu dituzte: “Herri batera iritsi eta postalak ikusten genituenean konturatzen ginen lekurik garrantzitsuenetan egon ginela”. Baina horrez gain, hango biztanleen begirunea ere nabaritu dute eta txirindularienganako errespetu handia dutela gaineratu dute: “Auto gidariak lasai joaten dira txirindularien atzetik, eta behar duten denbora guztia hartzen dute aurreratzeko”.

Hango bizimodua hemengoarekin alderatuta “lasaia” iruditu zaie: “Etxetik lanera eta lanetik etxera bizi dira, neguan batez ere”. Eurak ere hango erritmora egokitu dira, eta goizean goiz jaiki eta oso goiz joaten ziren ohera.

ERREPIKATZEKO MODUKO ESPERIENTZIA

Gozatu ederra hartu dute hiru gazteek aurtengo oporraldian, eta zalantza izpirik gabe errepikatze moduko esperientzia izan dela adierazi dute. Bizikletaz bidaiatzeak herrialde bat ezagutzeko aukera “bikaina” eskaintzen du, eta sekulako independentzia ematen du: “Oinez oso mugatuta zaude: autoa behar duzu, edo garraio publikoaren menpe egon behar duzu beti, eta bizikletaz norberak erabakitzen du bidaiaren erritmoa”. Dena ondo irten zaien sentsazioarekin itzuli dira etxera: Mila kilometro baino gehiago egin dituzte, eta bi zulatu baino ez dituzte izan. Eguraldia ere “primerakoa” izan dute, eta fresko egiten bazuen ere, euri askorik ez dute izan. Uda izatean egunak oso luzeak ziren. Oso berandu iluntzen zuten eta berehala irteten zen eguzkia berriro: “Lehenengo egunean antifaz bat eman ziguten trenean eta bidaiak amaierara arte gorde dugu, bestela han ez zegoen lo egiterik”.

Komunikatzeko ingelesez hitz egiten zuten, eta abilezia handirik ez dutela esan badute ere, uste baino hobeto moldatu dira: “Nahi genuena jan eta nahi genuen tokian egiten genuen lo”, esan dute umorez. Horrez gainera, ez dute haserterik izan euren artean: “Egun asko pasatu behar genituen gau eta egun elkarrekin, eta bageneukan beldur pixkat, baina primeran moldatu gara”, esan dute irribarrez. Nekatuta, eta apur bat argalduta itzuli dira etxera, baina dagoeneko hasi dira hurrengo espedizioa prestatzen. Ez da datorren urtean izango, dirua aurrezteko denbora behar dutelako, baina hiruzpalau urte barru berri abiatuko dira gupil gainean oporretara.



Hiru elgoibartarrak Osloko monumentu baten ondoan.

Julen Arosa, Kjeragg izeneko harri ezagunean.



Pulpito haitza, Preikestønen.



Trollveggen. Europako horma bertikal handiena, 1.800 metroko desnibelarekin.



Ainhoa Larrañagak irabazi du Euskadiko triatloi txapelketa

Zumaian jokatu zen Euskadiko triatloi txapelketa, eta Junior mailan Ainhoa Larrañagak irabazi zuen. Taldekako sailkapenean bigarren geratu zen Club Atletico San Sebastian taldearekin, eta emakumeen sailkapen nagusian seigarren egin zuen.



Ainhoa Larrañaga, erdian.

Futbol Eskolaren inguruko bilera antolatu du CD Elgoibarrek

CD Elgoibarrek batzarra egingo du futbol eskolan dabilzan umeen gurasoekin eta han azalduko diete futbol eskolari buruzko informazio guztia. Batzarra irekia izango da, eta 2006an, 2005ean eta 2004an jaiotako umeen gurasoek har dezakete parte. Batzarra eguaztenean izango da, hilaren 24an, Musika Eskolako auditorioan 19:00etan.

Bazkide kanpaina jarri du martxan CD Debabarrena areto futbol klubak

300 ausartek historia egingo dute. Nahi al duzu horietako bat izan? Horixe da Debabarrena areto futbol klubak erabili duen esaldia, bazkide kanpaina martxan jartzeko. 50 euroko bono-laguntza eskatu dute, eta bi kontu korrante jarri dituzte herritarren eskura ordainketa egin ahal izateko: Laboral Kutxa: 3035 0210 58 2100009871 / Kutxa: 2095 5079 82 1064211336. Concepto Egilek joan zen astean jokatu zuen denboraldiko lehen partida Agoncillo taldearen kontra, eta 4-2 irabazi zuten elgoibartarrek.

Zonaldeko ehiza xehe txapelketa irabazi du Arkaitz Egañak

Joan zen zapatuan jokatu zuten Zonaldeko Ehiza Xehe txapelketa Zanbranan (Araba), eta La Union elkarteko Arkaitz Egañak irabazi zuen. Elgoibartarrak zazpi eper eta zazpi galeper bota zituen, eta berak jantzi zuen txapela. Iñigo Gisasola izan zen bigarrena sei eperrekin, eta Iraitz Txurrukak egin zuen hirugarren, lau eperrekin. Hilaren 28an Gipuzkoako txapelketan hartuko dute parte hiru horiek.



ESKERTZA

MAXIMO GOROSABEL VELAR

*Zu izan zaitugu eredu
gure bizitzan.
Zuk esandakoak
eta erakutsitakoak
beti izango ditugu gogoan.*

Etxekoak

2014ko irailaren 9an hil zen, 84 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ELA gaixotasuna dutenei laguntzeko bustiko da Sanlo bihar, Kalegoen plazan

Domekara bitartean festa eta kirola uztartuko dituzte garagardo ferian

Sanlo Elgoibarko Eskubaloi Kirol taldeko kideek bat egin dute Alboko Esklerosi Amiotrofikoa (ELA) gaixotasuna duten lagunen aldeko mundu mailako kanpainarekin. baldekada ur izoztu burutik behera bota eta gauza bera egiteko beste hiru lagun izendatzean datza joko. Zarauzko Aiala eskubaloi taldearen izendapena jaso dute Sanlokoek. Taldeki-de baten amak ELA gaixotasuna daukalako egin zuten kanpainarekin bat zarauztarrek, eta orain elgoibartarren txanda izango da. Bihar bustiko dira Kalegoen plazan, eta ELA gaixotasuna dutenei laguntzeko diru-bilketa egingo dute. 13:00etan izango da ekimena, eta herritar orok har dezake parte. Alboko esklerosi amiotrofikoa gaixotasun neurologiko endekatzaila da, ahultasun progresiboa, gihar-atrofia, faszikulazioak eta espastizitatea, disartria, disfagia eta arnasestua dakartzana. Denborarekin, giharreen funtzioak pixkanaka geratzen joaten dira, eta Alboko Esklerosi Amiotrofikoa duen gaixoa paralizatuta geratzen da.



Garagardo feria asteburuan

Atzo inauguratu zuten garagardo feria, eta domekara bitartean kirola eta festa uztartuko ditu Sanlok. Besteak beste, klubeko taldeak aurkeztuko dituzte bihar, beteranoek eskubaloi partidak jokatuko dituzte eta gauean kontzertuak egongo dira Maalako karpan. Domekan, berriz, paella jana egingo dute.

Bihar izango da Gau Krosa, 20:00etatik aurrera

Mintxeta atletismo taldeak antolatuta, bihar jokatuko da Gau Krosa, 20:00etatik aurrera. Kalegoen plazan hasita, 7,7 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute partaideek herrian zehar. Izena aurrez ematen ez dutenek bihar bertan ere izango dute aukera, baina antolatzaileek jakinarazi dute gehienez 400 partaidentzako dortsalak izango direla. Dortsalak gaur jaso daitezke garagardo feriako karpan, 18:30etik 20:30era bitartean. Antolatzaileek jakinarazi dute kategoria bakoitzeko irabazleek garaikurra jasoko dutela, eta gainerako partaideen artean opariak zozkatuko dituztela. Haurren lasterketa 18:00etan hasiko da. Antolatzaileek jakinarazi dute 20:00etatik 21:00etara itxita egongo dela Elgoibarko erdigunea eta ahal den neurrian garajeetatik kotxerik ez ateratzeko eskatu dute.

Futbolak hartu zuen Aita Agirre plaza joan zen zapatuan



2003tik 2006ra bitartean jaiotako ume-entzako futbito partidak antolatu zituen CD Elgoibarrek joan zen zapatarako, eta gutxira 70 bat neska-mutilek hartu zuten

parte. Goizetik eguerdira bitartean jokatutuzten partidak, eta antolatzaileek esandakoaren arabera, giro "aparta" izan zen. Jende asko hurbildu zen partidak ikustera,

eta neska-mutilen jarrera eta kiroltasuna txalotzekoak izan ziren. Ez zen irabazle eta gaitzailerik egon, ekitaldiaren helburua futbolaraz gozatzea izan zelako.

CD Elgoibarrek eskerrak eman nahi dizkio Kirol Patronatuari, Udalari eta Udaltzaingoari, eskainitako laguntzarengatik. Era berean, partaide nahiz ikusle guztiei eta eguna aurrera atera ahal izatea posible egin zutenei ere eskerrak eman dizkiete, besteak beste, Anselmo, Erik eta Julen Vigarari; Karlos Garridori, Iñigo Arriolari eta Javi Gurrutxagari.

Munduko futbol txapelketa jokatu du Eli Ibarrek Espainiako selekzioarekin

Kanadan jokatu dute txapelketa datorren urtean

J oan den zapatuan lortu zuen Espainiako emakumezkoen futbol selekzioak Munduko Txapelketarako sailkapena, Errumaniako selekzioa 0-2 mendean hartu eta gero, eta Eli Ibarra futbolari elgoibartarrak partida ia guztia jokatu zuen [88. minutuan ordezkatu zuten]. Ignacio Quereda hautatzaileak sailkapen fasean erabili dituen 21 jokalarien artean minutu gehien jokatu dituenetako bat izan da, gainera, Eli Ibarra, bederatzi partidetak zazpitan hartu baitu parte.

Errumaniaren kontrako garaipenari esker, bere multzoko lehen postua ziurtatu zuen Espainiak, eta honenbestez, Munduko Txapelketa jokatzeko txartela lortu dute, sailkapen fasea amaitzeko partida baten faltan.

Athleticekin Ligan jokatu zuen 300. partidaren harira, Athleticekin bosgarren Superliga irabaztea eta Espainiako selekzioarekin Munduko Txapelketa jokatzeara



zirela bere ametsak adierazi zion Ibarrek BARRENI. Lehenengo asmoa betetzeko gogor borrokatu beharko du Bilboko taldearekin, baina bigarren nahia betetzea gertuago dauka orain. Espainiako selekzioak hautatzailearen deia jasotzen badu, Kanadan jokatu du Munduko futbol txapelketa datorren urtean.

Mendi lasterketen Euskal Herriko txapelketa irabazi du Maite Maiorak



lax egin zuten Axari Trail mendi lasterketaren lehen edizioa eta Maite Maiorak lortu zuen garaipena emakumezkoetan. Aurten ere jaun eta jabe izan da mendaroko

arra eta bigarren goz jarraian irabazi du Goierriko bihotzean jokatu den mendi proba, iazko denbora onduz gainera. Maiorak bi ordu eta hemeretzi minutu behar izan zituen ibilbidearen 25 kilometroak egiteko. Hamabi minutuko aldea atera zion bigarren sailkatuari, eta hamalautik gora hirugarrenari. Aurten bazeukan beste berezitasun bat lasterketa honek, izan ere, Euskal Herriko Mendi Lasterketen Txapelketa Indibiduala zen-eta Idiazabalgoa. Garaipen honekin, beraz, mendi lasterketen Euskal Herriko txapelketa da Maiora.

Ainhoa Lendinez elgoibartarrak ere hartu zuen parte proban eta bederatzigarren postuan sailkatu zen, 2:55:04 denborarekin. Gizonezkoetan, berriz, 13. postuan sailkatu zen loritz Conde elgoibartarra, 2:17:13 denborarekin.

Tenis ikastaroak antolatu ditu 40-15 elkarteak

40-15 elkarteak urriaren 1ean ekingo dio aurtengo tenis denboraldiari, eta horretarako, tenis ikastaroak antolatu dituzte. Adin eta maila desberdinetako jendearentzako ikastaroak prestatu dituzte. Mintxetako tenis pistan izango dira eskolak, eta astean bi orduko saioak eskainiko dituzte. Interesatuak irailaren 30erako eman beharko dute izena, Olaizaga kiroldegian. Informazio gehiago nahi izanez gero ondorengo telefonoetara deitu daitezke: 696 577 872 / 670 665 797.

Debabarrena BTT martxa urriaren 19an izango da

Urriaren 19an izango da Debabarrena BTT martxa, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Interesatuak www.kirolprobak.com webgunean eman dezakete izena, urriaren 17ra arte. Antolatzaileek jakinarazi dute egunean bertan ez dela egongo izena emateko aukerarik.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 2 – Anaitasuna 1 (Ohorezko erreg.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Elg. 4 – Agoncillo 2 (2B)

ESKUBALDIA

Lauko Elg. 31 – EHaraialdea 14 (Sen. neska)

Pneumax Elg. 10 – Urola 14 (Inf. mut.)

Txarriduna Elg. 33 – Urola 15 (Inf. mut.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 20

12:00 Elgoibar – Ordizia (Ohorezko kad.)

16:30 Elgoibar – Zestoa (Erreg.)

18:30 Elgoibar – Beasain (Jub.)

PILOTA (Ikastolan)

Barxakua, 19

20:15 Lagunak – Gazteleku (2. mailako nag.)

21:30 Lagunak – Zestoa (Pala)

‘Egunkaria’-ren auzi ekonomikoaren epaiketa egin edo ez erabakiko du Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak gaur

Fiskaltzak 129 urteko kartzelaldia eta 221 milioi euroko isuna eskatu ditu zortzi auzipetuentzat

Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak du hitza. Gaur erabakiko du *Euskaldunon Egunkaria*-ren auzi ekonomikoaren epaiketa egin edo ez, *Egunkaria auzia* ez baita amaitu. Hamaika urte joan dira Juan Del Olmo Espainiako Auzitegi Nazionalako epailearen aginduz Guardia Zibilak euskarazko egunkari bakarra indarrez itxi zuenetik, baina oraindik ez da amaitu auzia. Auzi nagusiko auzipetuak absolbitu zituzten arren, Espainiako Estatu Fiskaltzak eutsi egin dio Espainiako Auzitegi Nazionalak epaitutako auzi nagusitik eratorritako pieza ekonomikoari, Defentsak aurkeztutako artxibatze eskaera guztiei helegitea jarrita. Hala, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko epaile Juana Maria Uhanue, Iñigo Suarez de Odriozola eta Maria del Carmen Bildarraz epaileek epaiketa egin edo ez erabaki beharko dute gaur. Auzi ekonomikoan auzipetutakoak zortzi dira: Joan Mari Torrealdei, Iñaki Uria, Txema Auzmendi,



Joxe Mari Sors, Mikel Sorozabal, Fernando Furundarena, Ainhoa Albisu eta Begoña Zubelzu, eta fiskaltzak 128 urteko kartzelaldia eta 221 milioi euroko isuna eskatu ditu guztira.

Atxikimendu kanpaina

Gaurkoari begira, astelehenean, atxikimendu kanpaina hasi zuen Egunkaria-ren Alde elkarteak, auzipetuei babesa eman eta epaiketa ez egiteko eskatzeko. “Ozen

esan nahi dugu: *Egunkaria auziak* ez zuen existitu behar, eta auziak iraun badu ere, 2010ean behin betiko amaitu behar zuen, Espainiako Auzitegi Nazionalan egindako epaiarekin”, jaso zuen Egunkariaren Alde elkarteak atximendu kanpainaren aurkezpenean. *Egunkaria* itxi zutenetik gaur arte, mila aldiz salatutakoa errepikatu zuten: eragin politikoa duela auziak, eta 11 urte daramatzen auziak “kalte pertsonal eta sozial larriak eragin dituela.

Derion ospatuko den TopaEgunera deitu du Elgoibarko Izarrak

Azkoitian ospatu zuten estreinakoz TopaEguna 2012an, eta Sorraluzen iaz. Aurten Derion, Bizkaian, ospatuko dute euskaltzaleen jaia, urriaren 11n. Elgoibarko Izarra 1997az geroztik da Topaguneko bazkide, eta aurrekoetan egin legez, aurten ere parte hartuko du jaietan, eta eurekin batera parte hartzera deitu ditu euskaltzale guztiak. Hala, Deriora joan nahi duten euskaltzaleei irailaren 30a aurretik izena emateko eskatu diete elkartetik. Izena emateko bi bide zabaldu dituzte: 943 741 626 (Imanol) edo elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com.

Euskaltzaleon Topagunearen bueltan sortzen diharduten mugimendua sartzeko eta indartzeko ekimena da TopaEguna, eta Topaguneko bazkide diren 96 euskara elkarteetako bazkide guztiak (20.000 inguru) daude gonbidatuta jaietan parte hartzera. Egun osoko programa prestatu dute Derioko Tximintx Euskara Alkarteak eta Topagunekoak. Goizeko 10:30ean izango da harreara-ekitaldia, eta gauera arte iraungo du jaiak. Egitasmoan, besteak beste, gazte-topaketak, ume-gunea, kale-animazioa, txakolin dastatzea, herri-bazkaria, erromeria, eta kontzertuak izango dira (Egitarau osoa: www.topagunea.eus helbidean duzue).

Laugarren mailako ikastaroa Udal Euskaltegian

Debabe Udal Euskaltegiak 4. mailako ikastaroa eskainiko du aurten ere. HABEren 4. maila Europar Erreferentzia markoaren C2ren (menderatze-mailaren) parekoa da, eta, oro har, goi-mailako kulturari dagokion euskarazko gaitasun komunikatiboaren adierazle dugu. Ikastaroa egokia da euskara maila jasoagoa izan nahi dutenentzat eta euskara tresna gisa (lanean batez ere) erabili nahi/beharko duenarentzat edo jadanik erabiltzen duenarentzat; esaterako: Administrazioan lan egin nahi dutenentzat, irakaskuntza arlokoentzat; abokatu eta ekonomialarientzat... Informazio gehiago Debabe Udal Euskaltegian: Kalebarren plaza 2, edo 943 742 731 telefonora deitu. Matrikula zabalik dago irailaren 26ra arte.

Matrikula zabalik AEK euskaltegian

Euskaraz ezer edo gutxi dakitenentzako ikastaroak eskainiko ditu batetik AEK-k, eta bestalde, Administrazioarako, Irakaskuntzarako eta Osakidetzarako tituluak eta HABEren 1., 2., 3. eta 4. mailak edota EGA tituluak prestatzeko eskolak ere emango dituzte. Udalaren laguntzari esker, bekak eskuratzeko aukera egongo da. Informazio gehiago, AEKn: Plaza Txikian, 607 601 423 telefonoan edo elgoibar@aek.org helbidean. Izena emateko azken eguna: irailak 26.

Martitzenean zabaldu zuten ‘.eus’ domeinu-izenak eskatzeko epea, eta abendurako 2.000 domeinu berri izatea espero dute

Abiarazte-aldian elkarte, enpresa eta instituzio publikoek dute lehentasuna

Martitzenean hasi zuten .eus domeinuak eskatzeko abiarazte-aldia, domeinuak eskuratzeko lehentasunezko fasea. Bilbon egin zuen aurkezpena Josu Waliño puntuEUSen zuzendariak, eta lehenengo domeinu-izen eskari batzuk ere egin zituzten izaera, jatorri eta neurri ezberdinetako ordezkariak. Aurkezpenean Waliñok esan zuen urte amaiera bitartean 2.000 domeinu berri egitea espero dutela. Domeinuaren erabilgarritasuna azpimarratu zuen Waliñok: “Lortu behar dugu euskal gizarteak .eus bere domeinutzat hartzea. Ez hartzea, soilik, euskararen inguruko domeinu baten gisara: euskal jendarte gizartearen domeinu izan behar du, euskal kulturarena”

Abiarazte fase hau, batez ere, elkarte, enpresa eta instituzio publikoen domeinu-izenei bideratuta dago, eta horrek badu bere azalpena. Izan ere, ICANNekin hitzartutako irizpideak oinarri hartuta, domeinu-izenak dagokienei ematea ziurtatu nahi dute. Fase hau azaroaren 18an bukatuko da, eta denbora horretan eskatzen diren domeinu-izen guztiak abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, aktibatuko dituzte. Hortik aurrera, fase irekia edo Erregistro Orokorra zabalduko dute.

Edonork eska dezake .eus domeinu-izen bat. Arduradunek gar-



bi esan dute ez dutela eskatzailea nor den begiratu, webgunea baizik. Domeinua eskatzeko pausuak hiru dira: www.domeinuak.eus webgunean sartu eta domeinua eskuragarri dagoen begiratu. Eskuragarri badago, agertuko den erregistradore zerrendatik bat aukeratu, eta haren webgunean erosketaren prozesua gauzatu. Domeinu-izenen azken prezioa erregistradoreek jarriko dute, eskaintzen dituzten zerbitzuen arabera. Prezioak beste zerbitzu batzuk ere barnebil ditzake: .eus posta elektronikoa, DNSen kudeaketa, web espazioa, laguntza eta abar.

Unai Villenak irabazi du Igartza Saria

Unai Villenak (Elgoibar, 1980) irabazi du Igartza literatura sorkuntzako beka. Duela hamazazpi urte sortu zuten Igartza Saria Elkar argitaletxeak, Beasaingo Udalak eta CAF enpresak, idazle gazteak laguntzeko, eta ordutik hiru elgoibartar saritu dituzte: Uxue Alberdi (2005ean), Danele Sarrigarte (2012an) eta Unai Villena aurten. Hogeita bi proiektu aurkeztu dira aurten lehiaketara, eta Villenaren *Hauts haietatik* nabarmendu du epaimahaiak [Uxue Alberdi, Igor Estankona eta Danele Sarrigartek osatu dute epaimahaia]. Villenak 6.000 euroko laguntza jasoko du lana argitaratzeko.

Saritutako lanean bi lagunaren harremana kontatzen du Villenak, Oier eta Anderren arteko harremana, hain zuzen ere. Anderrek 33 urte ditu eta bizitza eze-gonkortzen dioten koktela: drogen menpekotasuna eta eskizofrenia. Oier lagun



idazlearen laguntzaz kontatuko du Anderrek bere bizitza. Buruko gaixotasunen aurrean daukagun jarrera salatu eta belaunaldi baten erretratua egiten du Villenak *Hauts haietatik* lanean.

Beinke bertso eskolan izena emateko epea, zabalik

Zabalik dago Elgoibarko Izarraren Beinke bertso eskolan izena emateko epea. Bertsolaritza ezagutzeko, ahoz-kotasuna eta komunikazioa lantzeko eta hizkuntzarekin jolasean ikasteko aukera eskaintzen du bertso-eskolak, eta urtetik urtera hazten ari da ikasle kopurua. Interesatuak irailaren 25a arteko epea dute izena emateko eta horretarako bi bide jarri ditu Elgoibarko Izarrak: Internetez, www.elgoibarkoizarra.com helbidean, edo elkarteak Ubitarten duen bulegora agertuta.

Bi adin tarte bereziko dira: 5-9 urte bitartekoak eta 9 urtez gorakoak. Saioren egutegia eta ordutegia denen artean adostuko dute eta horretarako bi bilerak deialdi egin dituzte. 5-9 urte bitartekoena irailaren 30ean izango da, 17:30ean. 9 urtez gorakoena urriaren 3an izango da, 16:45ean. Beinkeren lokalean biak (plaza txikia).

ETXEBIZITZAK

- Etxea alokatzen dut, Ubitarten. Berritua, altzariekin. Bi logela, egongela eta sukalde-jangela handia. Igogailuarekin. ☎ **943 742 442**
- Ganbara-apartamentua alokairuan, Errosario kalean. Logela bakarrekoa. ☎ **626 175 959**
- Bi logelatako etxea alokairuan, Maalan. Eguzkitsua, igogailuarekin. ☎ **652 716 724**
- Etxea salgai Eibarko erdialdean. Guztiz jantzi eta bizitzera sartzeko moduan. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea, trastelekua, igogailua eta 5 horma-armairu ditu. Argitsua. 132m² erabilgari. ☎ **626 203 838 / 699 495 249**
- Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **608 523 426**
- Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **697 737 046**
- Emakumeak bi logelako etxea hartuko luke alokairuan Elgoibarren. ☎ **602 490 595**

LANA

ESKAERA

- Emakumea adinekoak, ezinduk zein umeak zaintzeko prest. ☎ **688 901 667**
- Emakumea adinekoak zaindu edo garbiketara lanak egiteko prest. ☎ **690 925 929**
- Emakumea garbiketara lanak egiteko edo zerbitzari lanetarako prest. ☎ **638 338 816**
- Gizona eskaintzen da garbiketara egin edo adinekoak zaintzeko. ☎ **602 057 896**
- Emakumea garbiketara lanak egiteko edo zerbitzari lanetarako prest. ☎ **690 064 225**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Esperientzia handia. ☎ **609 947 694**
- Pedikura eta manikura egiten dut etxetik. Asteburuetan garbiketara egiteko prest. ☎ **639 423 493**

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. ☎ **633 808 931**
- Gizona lan bila. Adinekoak zaintzen esperientzia. ☎ **628 740 765**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Interna ere bai. ☎ **653 128 080 / 688 265 402**
- Emakumea eskaintzen da garbiketara egin eta adinekoak zaintzeko. Asteburuetan ere bai. ☎ **638 338 816**
- Neska lan bila. Tabernan, garbiketara egiten eta umeak zaintzen esperientzia. ☎ **677 216 767**
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan adinekoak zaintzeko. Interna ere bai. ☎ **602 186 462**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Egunez zein gauetz. ☎ **680 121 252**
- Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zein adinekoak zaintzeko. Interna ere bai. Klinika laguntzaile tituluararekin. ☎ **688 826 968**
- Mutil euskalduna eskaintzen da goizetan lan egiteko. Filosofian lizentziatua. ☎ **678 155 803**
- Emakumea eskaintzen da lanerako. Adinekoak zaintzen esperientzia handia. Orduka edo interna. ☎ **642 609 678**
- Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Geriatria laguntzaile ikasketak ditut. ☎ **646 931 162**
- Emakumea adinekoak zaintzeko edo garbiketara egiteko prest. Zerbitzari ere bai. ☎ **638 338 816**

IBILGAILUAK

- Renault Space autoa salgai. Egoera onean. ☎ **689 583 761**

BESTERIK

- Txakur kumeak oparitzen ditut. ☎ **943 743 032**

LOKALAK ETA GARAJEAK

- Garaje marraduna alokatzen da Lekuederren. ☎ **652 716 724**
- Garajea salgai Maalan, Eroski azpian. 16m², itxia. 22.000 euro. ☎ **675 007 661**
- Lokala alokairuan Erretxindin. 120m², bi komun, aparkatzeko erraztasunak. Gazteentzat edo biltegi moduan erabiltzeko egokia. ☎ **649 446 716 (Loli)**

PARTIKULARRAK

- Ingeles Filologia ikaslea edo lizentziatua behar da, DBHko ikasle bati eskolak emateko. ☎ **650 011 441**
- Pertsona behar da Mendaron DBH1 eta DBH3 mailako eskolak emateko. ☎ **646 113 085**
- Alemanierazko klaseak ematen dira. Metodo erraza eta atsegina. Ikasleen trukea eta E.O.I. azterketen prestaketa. ☎ **670 793 312**
- Lizentziatua eskaintzen da matematika, fisika, marrazketa... irakasteko. DBH, Batxilergo edo Heziketa Zikloetan. ☎ **699 495 278**

OSPAKIZUNAK

- 1934an jaiotako bazkaria, urriaren 18an, Sigma jatetxean. 12:30ean batuko dira Maalako kaperan eta 14:30ean bazkaria. 50 euro ordaindu, urriaren 16rako: 3035 0007 21 0071129758



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
 ☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



Zer agiri izan behar ditu etxe-jabeen komunitateak?

Arau orokorrak dio etxe-jabeen komunitateak derrigorrez agiri bakarra izan behar duela berez: akta-liburua. Hala ere, zenbait kasutan beste dokumentu batzuk izatea ere beharrezkoa da, edo gutxienez, komenigarria.

Komunitateak kontu korrante bat zabaldu nahi badu bere izenean, Identifikazio Fiskaleko Kodea eskatu behar du dagokion ogasun bulegoan.

Komeni da Kontabilitateko Erregistro Liburua eskuratzea ere, komunitateari dagozkion kontuak jasotzeko. Urte amaieran beti sinatu behar du liburua.

Eraikuntza berrietan, Eraikuntzaren Liburua ere izango dute, eraikinaren mantenturako jakin beharreko guztiak jasotzen dituen eskuliburua. Dokumentu horretan eraikinaren plano eta ezaugarri guztiak ageri dira eta gidaliburutzat erabiliko da beti komunitatean egiten diren konponketa, ikuskapen eta gainerako obra guztiak zaintzeko.

Azkenik, komunitate horrek langileren bat kontratatuta badu, laneko araudiak derrigorrezko jotzen dituen agiri guztiak ere izan behar ditu.

GOMENDIOA: Administrariak gorde eta artxibatu behar ditu komunitateari dagozkion dokumentu guztiak. Dokumentazio hori frogatzat erabiliko da edozein erreklamazio egin behar denean edo eta kontratatutako zerbitzuen funtzionamendua egiaztatzen behar denean.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Ainerere**, irailaren 25ean urtetxo bat beteko duzulako! Ondo pasa zure egunean eta muxu handi bat, familiakoen partez.



• Zorionak, **Rocio**, hilaren 23an 11 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiakoen eta lagunuen partez.



• Zorionak, **Ane**, gaur 8 urte beteko dituzulako. Ondo pasa, printzesa!



• Bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi eta zortzi! Zorionak, **Markel**, familiakoen, eta bereziki, Endika eta Danel txikiaren partez.



• Zorionak, **Luken**, domekan 3 urte beteko dituzulako. Patxo handi bat etxeko guztion partez. Ospatuko dugu behar den moduan!



• Zorionak, **Asier**, irailaren 19an 5 urte beteko dituzu-eta! Patxo asko denon partez, txapeldun!



• Egun zoragarria igarogenuen asteazkenean, zure seigarren urtebetetzean. Muxu potolo bat, etxekoon partez.



• Zorionak, **Mikel**, bitxito, abuztuaren 10ean 3 urte bete zenuelako. Etxeko guztion eta bereziki Nerea eta Igorren partez.



• Zorionak, **aititza eta Alora**, zuen urtebetetze egunean, eta muxu handi bana, denon partez, bereziki Igor eta Enararen partez.

Ostiral honetan ikasturte berriari ongietorria egiteko festa, 16:30etik aurrera: merendola, jolasak eta giro ezinhoba



Asteazkenetik igandera zabalten dugu, 17:00etatik 20:00etara

Konfiantzan IKASTOLA
 HH 0 (2013an eta 2014an jaiotakoak)
 azarotik otsailera hasteko
 matrikula zabalik
 irailaren 15etik 26ra

Orduetegi zabala: 7:30 - 19:30
 Jai-zubietan eta oporretan irekita

elgoibar ikastola

20 zapatua

Kirola

20:00 Gau Krosa

Mintxeta atletismo taldeak antolatuta, Kalegoen plazan hasiko da lasterketa. 18:00etan umeen lasterketa.

21 domeka

Goazen gudari danok...

10:00 Lore eskaintza

Hobi komunaren aurrean. 9:30ean batuko dira Aiastiako frontoian.

11:30 Kontzertua

Ertzaintzaren musika bandaren emanaldia, Aiastiako frontoian.

12:00 Arbola landatzea

Gernikako arbolen kimu bat landatuko dute. Ekitaldian Iñigo Urkullu lehendakariak hartuko du parte.

24 eguaztena

Hauteskundeak

19:00 Bilera

EHBildu Elgoibarrek bilera irekia deitu du programa eta zerrendak osatzeko, 'herritxik, herrixantzako' lemapean.

25 eguena

Musika

22:00 'Sotoko Hotsak'

Willis Drummond-en kontzertu Sinuosek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

Erakusketa

17:00 Atxutxiamaikaren argazki erakusketa

Hilaren 28ra arte egongo da ikusgai, Kultur Etxean.

Hitzaldia

18:30 'Las grandes olvidadas'

Filatelia elkarteak antolatuta, Begoña Imaz izango da hizlaria. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
19 Yudego 20 Zabaleta Goizez: Etxeberria 21 Zabaleta 22 Barrenetxea 23 Ibañez 24 Yudego 25 Etxeberria 26 Fernandez	Astelehenetik igandera Yudego	Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)

* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

SANLOBEER FEST

19 BARIXAKUA

18:00 Karparen irekiera

18:30-20:30 Gau kroserako dortsal banaketa

22:00 Kontzertua: The crazy wheels band

23:00 Dantzaldia

20 ZAPATUA

10:15 Klubeko argazki ofiziala Ikastolan.

10:45 Taldeko argazkiak IMHko museoan.

11:30 Beteranoen partidak (emakumezkoak)

Olaizaga kiroldegian. Elgoibar - Gasteiz.

12:00 Karparen irekiera

13:00 IceBucket Challenge

ELAren aldeko ekitaldia, Kalegoen plazan.

13:00 Beteranoen partidak (gizonezkoak)

Olaizaga kiroldegian. Elgoibar A - Elgoibar B

* Goiz guztian zehar muskuiluak banatuko dituzte, edariarekin.

14:30 Beteranoen bazkaria

22:00 Kontzertua: Melissa and The Jacks

23:00 Dantzaldia

21 DOMEKA

12:00 Karparen irekiera

14:30 Paella jana



ZINEMALDIAK 2014 ZINEA (HERRIKO ANTZOKIAN)

«Las dos caras de enero»

Ongarri zinekluba

20, zapatua: 19:15 / 22:15

21, domeka: 19:00

22, astelehena: 21:30



Zuzendaria: Hossein Amini. AEB, Erresuma Batua eta Frantzia 2014. Iraupena: 97 min. Drama. Aktoreak: Viggo Mortensen (Chester MacFarland), Kirsten Dunst (Colette), Oscar Isaac (Rydal). 1962. urtea da. Ameriketako bikote dotore bat Grezian da oporretan, eta Akropolisa bisitatzeko ari direnean Rydal ezagutuko dute. Greziarrez dakien gazte amerikarra da, eta turismo gida moduan egiten du lan. Bikotearekin afaltzeko gonbitea onartuko du eta ia oharkabean trama ilun batzuetan murgilduko da.

GUDARIEI OMENAGOKIA

IRAILAK 21 SEP.



GOAZEN GUDARI DANOK

ASKATASUN-BIDEAN EN DEFENSA DE LA LIBERTAD

ZIRARDAMENDI-ARISTIA (SAN MIGEL)-ELGOIBAR, 1936

10:00:
Lore-eskaintza gudarien hobi
komunaren aurrean.

11:30:
Ertzaintzaren Musika Bandaren
emanaldia.

12:00:
Gernikako Arbolaren kimu bat
landatuko da.
Inigo Urkullu lehendakariaren hitzak.

